

#BOLUNTALDIA

ARGAZKI LEHIAKETA

OINARRIAK

1.- Helburua

Gazteek boluntariotzaren inguruan izan duten edo duten esperientzia modu desberdin baten bitartez ezagutzera emateko jarri du martxan lehiaketa hau Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK), baita gazteek gai honen inguruan egiten dituzten hausnarketa desberdinak jaso eta zabaldu edo partekatzeko ere.

2.- Gaia

Lehiaketaren gaia honako hau da:

Nola islatuko zenuke zure bizipena?

Nolakoa da zuretzat boluntariotza?

Adierazi ezazu argazki baten!

Argazkiek, gaiarekin lotura zuzena duten irudi eta hausnarketak jaso beharko dituzte, aurretik aipatutako galdera horri nor bere forma eta erantzuna emanez.

Gogoratu, EGKren eginkizuna hezkuntza ez formalaren baitan boluntarioen lana balorean jartzea eta honako hau zabaltzea dela (indartzea, proiektzioa ematea...), hala, gazteekin eta boluntariotzaren munduarekin zerikusia izan beharko dute argazkiek, betiere kontuan izanik baloreen lanketaren ikuspegia dela sustatu nahi dena lan hau egitean. Gainera, boluntariotzak hartzen duen tokia eta izandako esperientziak gogora ekartzeko tartea eskainiko dugu EGKtik lehiaketa honen bitartez, bakoitzak bere ikuspegitik bizi esperientzia hau landuz.

3.- Parte-hartzaileak

18-30 urte bitarteko pertsona guztiek parte har dezakete lehiaketan, banaka edo taldean.

4.-Argazkiaren ezaugarriak

Proposatutako gaiarekin bat etortzea izango da argazkiaren lehendabiziko baldintza. Gainera, honako baldintzak ere bete beharko ditu argazki bakoitzean:

- Aurretik **argitaratu gabea** izatea.
- **Norberak ateratako argazkia** izatea, hau da, lehiaketatik kanpo geldituko da adibidez web atari batetik ateratako argazki oro. Kasu horretan, lana zuzenean deskalifikatua izango da eta ez du inolako aukerarik izango lehiaketako prozesu edo sarietara sarbidea izateko. Era berean, irudi guztiak eskubide libredunak izan beharko dira edo, bestela, titularraren baimenaren ziurtagiria izan beharko du (eta argazkiarekin batera bidali edo aurkeztu) bidalketa egiten duen pertsonak. Azken finean, irudi guztiak eskubide libredunak izan beharko dira edo eskubideak dituen pertsona edo enpresaren baimen esplizitua izan beharko du.
- Moldaketak dituzten edo editatuta dauden argazkiak ere **onartuko dira**.
- **Letren edo testuaren erabilera librea egin ahalko da**, hau da, onartuak izango dira mota honetako ezaugarriak txertatuta dituzten argazkiak.
- Argazkiaren bidalketarekin batera, **honi izenburu bat jarri beharko zaio** eta **nahi izatekotan berau hobeto azaltzen duen esaldi bat** ere txertatu ahal izango da deskribapen gisa, hau ulertzeko edo errazago ezagutarazteko. Aspektu hau ere, puntuagarria izan daiteke gehitzekotan.
- **Ez dago entregatzeko argazki kopuru mugaturik**, hau da, nahi beste argazki aurkeztu ahal izango ditu pertsona edo talde bakoitzak.
- Argazkia, **JPG edo irudi formatuan** egon beharko da entrega egiterakoan.
- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak **ez ditu** indarkeria, sexismoa, homofobia eta arrazakeria edo bazterketak bere baitan hartzen dituen edukizko edo pertsonen **oinarrizko eskubideak** urratzen dituzten irudi eta argazkiak **onartuko**. Era berean, EGK-k ez du izango irudi edo argazki hauen inguruko ardurarik, eduki horiek barne-biltzekotan.

Beraz, **genero guztietako argazkiak onartuko dira**: fotomuntatzeak, collage-ak, ilustrazioak daramatzaten argazkiak, testua idatziz duten irudiak...

Gainera, argazkiak egiteko edozein gailu erabili daiteke: argazki-kamera, mugikorra, bideokamera...

Parte-hartzaile guztiek, honako **datu hauek erraztu** beharko dituzte argazkiaren edo argazkien bidalketarekin batera:

- Izen-abizenak / Helbidea
- Kontakturako telefono zenbaki bat
- Argazkiaren izenburua eta berau azaltzen duen esaldi labur bat (azken hau aukeran)
- Legezko alderdien onarpena beteta (Hau argazkia jasotzean bideratuko edo bidaliko zaie parte-hartzaile guztiei)

5.- Lehiaketaren faseak

- **Azken entrega eguna:** Argazkiaren bidalketa egiteko epea urriaren 31n bukatuko da, gaueko 00:00etan. Egun eta ordu horretatik aurrera egiten diren bidalketak, ez dira sari-banaketaren edo kalifikazio fasean sartuko, beraz, ez dira baloraziorako onartuak izango.
 - o Argazkia, **hezkuntza@egk.eus** helbidera bidali beharko da.
 - o Gainera, artxiboa handiegia izango balitz, **DRIVE dokumentu gisa** ere partekatu daiteke helbide elektroniko edo helbide beretik.
- **Epaimahaiaren erabakia eta bozketa fasea:** azaroaren 1etik, 25era arte izango da bozketa fasea eta aukeraketa egiteko tartea, bitarte honetan izango dutelarik epaimahaikide desberdinek izango dute iritzia emateko eta berau partekatzeke aukera.
- **Sarituen jakinarazpena eta sari banaketa:** azaroaren 25eko asteen, irabazleei beraien argazkia saritua izan dela jakinaraziko zaie eta **abenduaren 2an BOLUNTAN** burutuko dugun boluntariora topaketan izango da **sari-banaketa ekitaldia**.

6.- Sariak

Honako sariak banatuko zaizkie irabazleei:

- **Lehenengo saria:** Egonaldi bat bi pertsonentzako “zuhaitz etxeak” arbola-etxoletan.
- **Bigarren saria:** Liburu sorta bat.

7.- Epaimahaia

Honako kideek osatuko dute lehiaketaren **lehenengo sariaren epaimahaia**: Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko Batzorde Iraunkorrek kideek, EGK-ko presidentek eta hezkuntza teknikariak.

Honetaz gain, **bigarren saria** online atariko bozketa bitartez izango edo egingo da, “ikuslearen sari” bezalako bat bilakatuz. Honetan, edonork eman ahal izango du bere iritzi edo bozka eta horrela erabakiko da bigarren saritua nor den.

Honako irizpideak, kontuan izango dira erabakiak hartzerako unean:

- Argazkiak lehiaketaren **oinarriak betetzea**.
- Lanak proposatutako **gaia** ondo adieraztea.
- Mezua **jatorrikoa eta sortzailea** izatea.
- Kalitate teknikoa bigarren mailako irizpidea izango da, ideia izango da lehendabizi balioetsiko dena.

Oinarri hauetan zehaztutako baldintzak betetzen ez dituzten lanak baztertzeko eskubidea izango du epaimahaiak.

Epaimahaiaren erabakia, abenduaren 2ko boluntariora topaketetan emango da argitara.

8.- Legezko alderdiak

Izena ematerakoan parte hartzaileak lehiaketaren oinarriak **irakurri eta ulertu dituela adierazten du**. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri guztien onarpena adierazten du. Parte hartzaileak izango dira irudietan azaltzen diren pertsonengatik irudi eskubideak direla eta izan daitekeen edozein erreklamazioaren erantzule bakarrak. Argazkietan adingabeak agertzen badira, lehiakideek pertsona horien tutoreen baimena aurkeztu beharko dute.

Datu Pertsonalen Babeserako Lege Organikoaren arabera, parte-hartzaileek argazkia bidaltzerakoan Gazteriaren Kontseiluari emandako datu pertsonalak lehiaketarako beharrezkoak diren izapide eta gestioetan kudeatzeko baimena ematen diete, hau onartzeko orria bidalketa egitean beteko delarik.

Lehiaketan parte hartzen duten pertsonak baimena ematen diote EGKri materiala, doan eta egoki ikusten den edozein euskarritan hedatzeko, banatzeko, erakusteko, publikoki komunikatzeko, zabaltzeko eta erreproduzitzeko.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak lehiaketa honetako oinarriak edozein momentutan interpretatzeko edo aldatzeko eskubidea du, baita saria eman gabe uzteko eta lehiaketa bera bertan behera uzteko ere, betiere tartean neurri hori bidezkotzen duen arrazoiren bat bada. Edozein kasutan, EGK-k oinarri hauetan eman daitekeen edozein aldaketa, eta bere kasuan, lehiaketa osoaren baliogabetzea bide honen bidez komunikatzeko konpromisoa du parte-hartzaile guztiek informazio hori eskura izan dezaten.

9.- Kronograma

- **Argazkien bidalketak:** urriaren 31ra bitartean.
- **Bozketak eta epaimahaiaren erabakia:** azaroaren 1etik 25era.
- **Sarien jakinarazpena eta sari-banaketa:** azaroaren 25etik abenduaren 2ra.